

# Emantzipazioaren auzian

**G**aruna gordetzeko dugun maletan *fragile* pegatina itsatsita hasi beharko genuke gure bidaia. Baina ez da hori izaten etxetik irteteen nagusitzen den sentipena. Bestela, ez genuke egingo. Urte onak izan ziren, oso onak. Baina lagungarria izan da zailak ere izan zirela ulertzea: ez baita garai erraza. Psikearentzat bereziki hauskorak dira 25era arteko urteak.

Erabakiak hartzeko eta nia-ren garapenerako garrantzitsua den burmuinaren atala heldutasunera iritsi baino askoz ere lehenago aukeratutako ikasketak bukatuta, edo artean bukatu gabe: lehen lanak, lehen etxebizitza propioa alokairuan, non eta norekin... Hori dena itxura onean egin ahal izateko, beldurra, egin gabe uzten dugun ohe azpian ondo gordeta behar dugu.

EAEko gazteei emantzipaziorako pausu hori emateko laguntza ekonomikoa emango die Eusko Jaurlaritzak. Egia ote, gazte askok ez duela *amatxo*-ren etxea utzi nahi? Harena baino, sarritan bi gurasoena izaten den etxetik irteteko motibaziorik handiena larrutan lasai egiteko leku bat izatea omen da. Ez zait lotsatzeko moduko motiboa iruditzen. Baina Euskal Herrian horretarako aukera gutxi omen dagoenez, ez omen du merezi alokairua ordaindu, etxearen garbiketaz arduratu eta gaizki jaten ibiltzeak. Epe erdira, zenbait topikoren egiazkotasuna frogatzeko datuak eman ditzake programa horrek. Oraingoz, piztu du interesa: 2019ra arte indarrean sartuko ez den neurriak arreta zerbitzuak kolapsatu ditu.

23 eta 35 urtekoen artean, muga baten eta bestearen arteko zirrikitan kabitzen zaretenon artean, ahal duenak har dezala laguntza. Baina ez hartu serioegi hiru urtetan lagundu ondoren *alla kuida* esaten dizuen hori. Hegoekin bizi ondoren, kalkuluak egin beharko dituzue, eta ziurrenez ez dira



Irati Elorrieta  
IDAZLEA



Antton Olariaga

izango merezi izan duten orgasmoe-nak. Kalkuluak gaizki ateraz gero, akaso gurasoen etxera bueltatzea egokituko zaizue.

Nire hasierako ibilaldietan alde ekonomikoa ez zen zaila izan. Alokairu merkeak zituen hiri batean lur hartu bainuen, hiria garapen bidean zegoen eta ni ere bai. Garai haietako hanka sartzek salbatu naute, sendabidean jarri ninduten. Izena aldatu ez duen arren, beste hiri batean bizi naiz orain. Alokairuen prezioei jarraituz auzoz aldatu nintzenean, ez nintzen konturatu zer ari nintzen galtzen. Auzoa galdu nuen, auzoan nituen harremanak galdu nituen.

Berlin zaharrari, 6,20 Euro/m<sup>2</sup> dioen hilarria jarri diote martxoan. Horren erdia ordaintzen genuen guk! Prezio haietako etxebizitzak desagertu direla argi dago. Desagertu ez direnak barruan bizi zirenak dira. Hilarria jarri eta gutxira irudi bat utzi du hiriburu heterodoxo honek: 13.000 pertsona kalean, euritan, alokatzeko eskaintzen den pisua ikusteko itxaroten ari den ilara luze-luzea.

Manifestari haiei begira jarrita, hantxe ikusi nituen denak: bistaz galdutako auzokideak, bidaideak, haien maitale izandakoak. Berpiztuta. Edo inoiz hil gabe. Melankonia sentitu nuen, eta ez nuen nahi. Irudi horrek esperantza izpi baten ikur ia errebeldea ere bazuela esan nion neure buruari.

Alokairuetarako laguntzak baziren orduan eta badira gaur ere. Baina ez dute balio laguntzek markatzen duten preziotik beherako etxeak topatzea ezinezko bihurtu denean, laguntza behar dutenek etxebizitza baten kontratua lortzeko pasatu behar den *casting*-ean aukerarik ez dutenean, aste beterako datozenekin finko bizi direnekin baino negozio tentagarriagoa egin daitekeen. Laguntzak behar dira. Baina ez dute balio merkatua txoratzea galarazteko. ■